



NON DAGO ZORIONTASUNA?

Aita Rahner agurgarria: Zoriontasuna ta zorion izatea gaiaz idatzi gura neutzun, orretaz berba egiteko bear ba'da ni norkirik egoki-ezena izan arren. Ori zeuk egiaztu al izango dozu. Naiko jauntxo biziera (burgesenena) daroat, anai-arreba batzuk daukadaz, nire aita-ama ez dagoz aldenduta ta etxea [ta] berebilla daukaguz. Atetik (kanpotik) sendi ona ta zorionsua gara. Sendi onetan, bost norki adimendun gara eta bere kideko bat naikoa aldatu da. Orain beste asmo batzukaz jarraian ibilli dabil, gauezko bizitzea daroa, erre egiten dau, ikastola truk-egin bear izan dau ta orain be aldatu bearko dauala dirudi. Ez ba'dozu igarri ondiño, norki ari neu nazela esango dautzut.

Nire aita ta ama arduraz dagoz eta arazo onen inguru minguruan dabiltz: barrukoen ikastetxera eroan galerazpenak ezarri niri; jaurti ni etxetik; beste toki batera joan geu; ori edo au; eragozpen geiago... Onerako autu-mautuak birregiten egon naz bein eta geiagotan urte bitan zear.

Ikastola "potolo" onetan-olan deituten dautsoe edonon-ikarle eredu-zukoak izan nintzan irugarren ikasturtera arte. Gero ikas-agiriak txarresten asi ziran. Asi nintzan zabarkeriz jantziten, ulea luze eta tarrapatat erabilten. "Galdukeriaren ezaugarri berarizkoa" iñoen.

Urte bi geroago, ikastetxea aldatu egin neban; baiña ikastetxe barri onetan urte bat bakarrik egin, ta urtenda bertatik beste baten billa nenbillen. Zioa? "Esaera ez egokiak ikastetxe-giro aretarako esatea" ta "ezer egin barik alperkerian beti leioetatik begira" zuzendariaren autormenez. Orain potolo zaparrote au ikastetxetik at dabil ta zoriontzaz eskutitz bat idazten diardu mundu guztiak gura izan, agurtu ta billatu ta zerbait adierazoten dauan berba orretzaz. Ainbeste norkiri iltera eragin dautson itza. Nire lagunak be zorion-billa dabiltz. "Lagunak" esan dot eta ondo esan be. Estualdietan ba-nago ta iñok ez ba'daust lagunduten, ezin leitekela da. Eurok be lar ondaturik dagoz mundu "zorionsu" onetan. Baiña ez dabiltz zorion billa, etsipenez baiño.

Orain geratzen doaz, paitar-ontzia jaso eta lobedarra artuta (batzuetan zizkatu egiten dira, baiña gitxitan). "Ni ezin pentsatu dodanean - diño - ondoen nago" eurretarik baten batek. Baiña ez da zoriona aurkitu dodalako; baka-rrik bizitzaren zentzuneza ikusten nago. Beste bat gaiso-etxera doa gitxienez amabost egunetik amabost egunera; an urdallairen garbitze bat egiten dautsoe, odol- emotea be bai ta itzi joaten, barriro etorriko dala jakin arren. Eta dotorreanean barreka dator. "Emen naukozue barriro diño"; eta batzuetan be oartxuak ezarriz: "barriro!" arrituten balitz lez. Barre egiten dau, baiña ez dau aurkitu zoriontasunik aurpegira begiratzen dautso zunean eta zure begiak beranakaz topo egiten datenean, argiro ulertzen dautsezu ustezko ontzi-galtzaille onezi bere oker bidea zana ezin eroanez eta bere eriotz-epaiketa egonez ulertzean beretzat ta niretzat orain aspaldiz ez dagoala alizaterik artzeko beste zuzen biderik.

Zoriontasuna, zorionsua izatea!... ekarri ta narratzu, bere indar ikaragarria apurtuten dauan diabru zarmagai-lua. Atsegin jat lagun-talde au zer esan gura leuken bururatu ta jakin barik berba egiten daualako. Toles-bagea ta ezin eutsia jasan leikielako. Itzi dabe gogoratzea, eta ez erabakiren bat artuta gero, eutsitea eziña dala ikusirik baiño. Eurak ba-dakie ta olan bizi dira euren burua ezerezten, asmo andi ta bakar bategaz: zoriontasuna.

Elburu oneik eurai lez niri eragiten daust igesari emoteko; iges neu nazanetik, giro-ingurua guztiz ostean itzi dot-eta 15 urte neukazala etxetik abiatu ta zentzukizun, biotz-ikara, oar-ikarle niarduan. Giza maitasunez nenbillen poz-billa. Erlijiñooren besoetara eldu naz jakiteko ori ez dala nik gura dodana. Paitarra ugari artu dot, neu lotsatu barik negar egin dagidan. Lo-bedarretara (drogetara) jaurti dot burua oldoztu pentsau barik bizi al izan naiten, ta eurretarik askatu naz billa billatzen ibilteko.

Aita Rhaner agurgarria, guzti oneitzaz itaun bat baka-rrik egin bear deutzut: Zuk ba ete dakizu erantzunik? Non dago zoriontasuna? (Norbert'ek).

(Letona'k euskeratua)